

Ezaugarriak

- Enpresako euskararen erabilera areagotzeko metodo bat da. Borondatezkoa eta doanekoa da.
- Establezimenduak konpromiso batzuk ditu, eta Udalak beste batzuk. Udalak teknikari bat jartzen du entitatearekin adostutako helburuak betetzen laguntzeko eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Baldintzak

- 1-10 langile bitarteko negozioa izatea eta, plan baten bidez, euskararen erabilera normalizatu nahi izatea.
- Arduraduna eta enplegatuen erdiak euskaldunak izatea, eta horietako bat, gutxienez alfabetatua.
- Ageriko idatzizko elementuetan euskarak presentzia izatea (errotulua, oharrak, ageriko material idatzizkoa).

Urratsak

1. **Diagnosia.** Enpresaren egoera linguistikoaren azterketa egiten da. Horretarako, Udaleko teknikaria eta establezimenduko arduraduna biltzen dira.
2. **Proposamena.** Jasotako datuak aztertu ondoren, Udaleko Euskara Zerbitzuak planaren proposamena prestatzen du.
3. **Adostasuna.** Prestaturiko plana establezimenduari aurkezten dio Euskara Zerbitzuak, eta helburuak eta ekintzak adosten dira enpresarekin.
4. **Hitzarmena eta inplementazioa.** Hitzarmena ekitaldi publiko baten bidez sinatzen da, eta abian jartzen da plana.
5. **Jarraipena eta ebaluazioa.** Prozesuan zehar ekintzen jarraipena, ebaluazioa eta behar dituzten egokitzeak egiten dira.

Laguntzak:

Aztertzen diren arloak	Udalaren eskaintza
Irudia eta errotulazioa	<ul style="list-style-type: none">• Diru laguntzak (1)• Itzulpenak, zuzenketak• Aholkularitza <p>1.000 € arte (1)</p>
Pertsonalaren hizkuntzako gaitasuna	
Barruko harremanak	
Kanpoko harremanak	
Dokumentazioa	
Irizpide linguistikoak	

(1) Behin bakarrik lagunduko dio Udalak enpresa bakoitzari.

Ziurtagiria:

- Ziurtagiria jaso ahal izateko, hainbat baldintza bete beharko ditu enpresak. (Galdetu Euskara Zerbitzuan)
- Udaleko Euskara Zerbitzuak emango dio ziurtagiria enpresari, eta enpresa horretan zerbitzuak euskaraz zein gaztelaniaz jaso daitezkeela adierazten du.